



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

64 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko (3. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen (4. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak arautu ditzan (5. or.).
- Irakeko Kurdistanen gaineko adierazpen politikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- LORAFNA oinarri duen autogobernu-ahalmena erabiltzeari Estatuko Gobernuak behin eta berriro eginiko erasoen aurkako adierazpen politikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Maiatzaren 22a Ezkaba mendiko gotorlekuko ihesean askatasunaren alde eta faxismoaren aurka hildakoen urteurrena izatearen ondoriozko adierazpen politikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sinteleko langileentzako zubi-kredituek eragindako interesak bere gain har ditzan. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburutegien sarean Internet jar dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egin, Allon industrialde bat sortzeari buruzkoa (9. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egin, Corellako liburutegi publikoak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzkoa (9. or.).

- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, lurzatieen berrantolamenduan gertatutako aldaketei buruzkoa (10. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, lurzatieen berrantolamenduaren arloan 2001erako aurreikusita zeuden jarduketei buruzkoa (11. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, abeltzaintza babestu eta hobetzeko programaren barreneko “Saneamendu kanpaina” kontusailaren betetze egoerari buruzkoa (11. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, “Nekazaritza ustategien eraginkortasunaren hobekuntza” kontusailaren betetze egoerari buruzkoa (12. or.).
- Galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina, ordenagai-luak erosteko laguntza kanpainari buruzkoa (12. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, sendagaiak eta beste farmazia produktu batzuk erosteko jarraitzen diren prozedurei buruzkoa (13. or.).
- Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina, “Internetera konektatutako ordenagai-luak erosteko laguntza” kontusaila aplikatzeari buruzkoa (14. or.).
- Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina, 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza arautze-ko foru dekretua ez onetsi izanari buruzkoa (15. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak mozio hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioen azalpena

Joan den ostiralean, maiatzak 25, Ministroen Kontseiluak Empresa Nacional de Autopistas (Enausa) delakoa Sociedad Estatal de Participaciones Industriales sozietateari eskualdatzea erabaki zuen. Gobernuak eledunak ondoren izandako prentsaurrekoan azaldu zuenez, eskualdaketa horren xedea aipaturiko enpresa denbora-epe labur batean pribatizatzea da. Horrela, aspalditik jendearen ahotan zebilen gai bat, Enausaren pribatizazioa, alegia, ofizializatu egin da.

Gauza jakina da enpresa horrek % 50eko parte-hartzea daukala AUDENASAn, eta akzioen

gainerako % 50 Nafarroako Gobernuak daukala. Gure talde parlamentarioaren aburuz, AUDENASAn % 50 pribatizatzea kaltegarria da Nafarroaren interes orokorarentzat.

Nafarroako Autobidea gure lurraldeko komunikazio-bide nagusia da, iparra eta hegoa lotu eta bi eskualde horiek Iruñera hurbiltzen baititu. Horregatik, AUDENASA enpresaren %50 esku pribatuetera igarotzeak esan nahi du haren kudeaketan irabazirik handiena lortzeari, emaitza-kontuari, emanen zaiola lehentasuna, autobide horren gizarte-errentagarritasunaren edo lan-baldintzen kaltean. Are gehiago: gaur egun aplikatzen ari diren zenbait neurrik, hala nola bidesari bigunek, oztopo larriak izanen lituzkete, eta, betiere, Nafarroako Gobernuak kostu handiagoak hartu beharko lituzke bere gain. Bestalde, lotura berriak eraikitzeak ere ez luke kapital pribatuan aldeko jarrerarik eraginen. Hori guztia, doakotasunari buruzko eztabaida aipatu gabe; gai horri buruzko erabakia Nafarroako Parlamentuak hartu behar du.

Horregatik, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuaren talde parlamentarioaren ustez, Nafarroako Gobernuak egoera berri horrez baliatu behar du gutxienez ere AUDENASako gehiengoa eskuratzeko. Nafarroako Gobernuak, sozio akziodun paritarioa den aldetik, lehentasunezko aukera dauka akzio horiek eskuratzeko. Gainera, bi gobernuen arteko harreman politiko instituzionalak zorrozki merkataritzakoak ez diren akordioetara iritsi ahal izateko bide egokia izan behar dute.

Erabaki proposamena

Nafarroako Gorteek Foru Gobernua premiatzen dute gutxienez ere AUDENASako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko beharrezkoak diren urratsak eman ditzan.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketa aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluek xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran izapidatua izan dadin:

Gizartearen gehiengoaren borondatea errespetatzea oinarri duten bizikidetasun soziopolitiko-rako printzipio eta prozedura multzo bat da demokrazia. Demokraziak ez die mugarik jartzen helburu edo proiektu politikoei, baldin eta giza eskubideak errespetatzen badira eta xedeak lortzeko ahalegina herritarrek haiei askatasunez emandako babesaren bitartez egiten bada; hau da, inposiziorik eta hertsapenik gabe. Giltzarria da herriaren borondateak, zilegi den eran adierazita, unean uneko ordenamendu juridikoan eta erakunde-egituran isla izatea.

Baldin eta, Euskadin gertatzen den bezala, subiranotasuna eta lurraldetasuna eztabaidagai badira eta blokeoa eragiten badute, demokraziaren bidean sakontzea eta bilatzea izan daiteke guztien bilgunea eta aurrerapen-bidea. Aukera eta nahi guztiek egiteko moduko bidea izan daiteke demokraziaren altxortegian arazoetarako irtenbide berriak ikertu eta haztatzea. Normalki, demokrazia

gehiagok bake sozial, juridiko eta politiko gehiago ekarri ohi du.

Tradizio demokratikoa daukaten gizartearen berezko ezaugarria da erkidegoarentzat garrantzi behinekoak diren gaitan herri-kontsulta egitea elkarrizketa politikoaren emaitza eta akordioei buruz. Helburua da oinarritzko aferetan gizarteak zuzenean esku hartuz gurea bezalako demokrazia ordezkatzailer baten funtzionamendua hobetzea. Horrek esan nahi du lehen printzipio demokratikoa osoki aplikatzen dela eta, horrela, akordio eta erabaki instituzionalen zilegitasuna indartu egiten dela. Gure kasuan, gaur egungo statusa aldatzeko edozein balizko akordio prozedura hori jarraitu beharko luke. Are gehiago: herritarrei kontsulta egiteko ahalmena itun bidez xedatu eta arautzean egon daitezke euskal gatazka gainditzeko giltzarriak.

ETA talde terroristak hogeita hamar urte baino gehiagoz egin duen bereizketarik gabeko terrorismoaren ondorioz, gaur egungo gazte askok ETAren estortsio, xantaia eta erailketena beste egoerarik ez dute inoiz ezagutu.

Horregatik, beharrezko deritzogu komunikazio norabide zatikatzailer edo norabide eraikitzailean bideratzea ahalbidetzen duen abiapuntua aztertzeari, gazteen artean bakearen aldeko hezkuntza sustatzeko giltzarri metodologiko modura. Balio demokratikoak bultzatzea gazteengan, horiek baitira etorkizunean erakundeetan erabakiak hartuko dituztenak. Elkarren kontrako jarreraren arteko aldeak identifikatu eta azpimarratzea ardatz nagusi duen elkarrizketa-, eztabaida-, komunikazio- edo lankidetzaren ereduak, zeina, bestalde, ohikoa baita, ez du balio lan konpartitua lortzeko, lehenetsi eta saritu egiten dituelako bat ez datozen gauzak, bereizi eta aldendu egiten dutenak.

Aurkikuntza-prozesu hori gertatu ahala, komunikazio eta elkarrizketarako gure ahalmenak eta trebetasunak dauzkaten muga izugarriez jabetzen gara. Gaur egun gure gizartean nagusi den eta oinarri gisa hartzen dugun elkarrizketa-paradigmak aukera gutxi ematen ditu. Laburki esatearren, elkarrizketaren ideia honako honetara murrizten dugu: arrazoia eta egia guk izateari eta erruak eta errudunak beste aldean egoteari buruz konbentzitzer eta hori demostratzer. Kontuan izanik beti

daudela zenbait "alde", horrela ulerturiko elkarrizketaren baliagarritasuna zalantzarria da oso.

Proposaturiko plana irakaskuntza arautuko eta ez-arautuko ikastetxeetan eta unibertsitate-fakultateetan erabil daiteke; baina, halaber, aisialdi-edo kirol-taldeetan, era guztietako eta adin guztientzako elkarteetan edo, adibidez, irakasle-klaustro, auzokideen elkarte, edozein talde-lanean eta are familietan aplikatzeko modukoa da.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bizikidetasun demokratikorako eta bakerako hezkuntzarako plan bat egin dezan, Nafarroako ikastetxeetarako. Plan hori Nafarroako lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendu beharko zaie, eta lehentasunezko xede hauek izanen ditu: bakerako hezteak, Giza Eskubideak errespetatzea, bortxazko jarrerren prebentziorako jokamoldeak ezartzea eta aniztasunarekiko errespetuan nahiz tolerantzian gauzaturiko balio demokratikoak erabiltzeko pizgarriak ezartzea.

Bakerako hezteko plan horren helburuen artean, honako hauek aipatu behar dira:

a.- Balio demokratikoei eta pertsonen eskubide eta askatasunei buruzko prestakuntza.

b.- Gatazkak aztertu eta konpontzeko estrategiak.

c.- Enpatia eta asertibitateko komunikazio-gaitasunak.

d.- Gatazkei modu eraikitzailean aurre egiteari dagokionez nor bere gaitasunez jabetzea. Berezi-ki azpimarratuko dira komunikaziorako gaitasun eta trebetasunak.

e.- Pentsamendu kritikoa eta pentsamendu-malgutasuna.

f.- Lankidetzan aritzea, helburu komuna lortzeko.

g.- Zenbait balio eta jarrera, hala nola besteak errespetatzea, autoestimua, solidaritatea, lankidetzak.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 29an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak arautu ditzan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak arautu ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dio Hezkuntza Batzordeari:

Musika-ikasketak, LOGSEk ezarritako araubideak xedatzen duenez, 2001-2002 ikasturtean ezarri beharrekoak dira. Ikasketa horiek betidanik izan dute Hezkuntza Departamentuaren erreze-loa, Nafarroan goi mailaren araubidean aurrera ez egiteko. Hezkuntza zuzendari nagusi Santiago Arellano jaunak esan zuenez, gai hau "zintzilik" dago, "betetze-egunik gabe".

Musika-ikasketen araubidean aurrerapausoak emateko borondate politikorik ezaz gain, kontserbatorio berria egiteko obren arazo konplexua aipatu behar da. Badirudi ezin izanen dela kontserbatorio horretan goi mailako ikasketarik egin.

Gauzak horrela suertatu izana alde batera utzirik, argi dago 2001-2002 ikasturtean Pablo Sarasate kontserbatorioak goi maila ez duela eskainiko. Horrela, bada, zenbait ikaslek ezin izanen dute Iruñean ikasten jarraitu, eta horrek kaltetu guztiei erakarriko dien kostua eta familien baitan sortuko dituen arazoak begi-bistakoak dira.

LOGSEko goi maila ez eskaintzea atzerakada bat da berez, Pablo Sarasate kontserbatorioko zuzendariaren hitzetan; izan ere, ikastetxe horretan gaur egun irakatsi egiten da 1966ko plan zaharreko goi maila.

Goi maila hori eratzearen ondorioz antza denez sortzen diren arazoetako beste bat kostu ekonomikoa da, irakasleek katedradun izan behar baitute, eta horrek gastu handia ekar liezaioke Foru Komunitateari. Arazo hori zerbitzu-eginkizunen bitartez konpon liteke: irtenbiderik onena izan ez arren, goi maila abian jartzeko irtenbide bat izanen litzateke.

Hezkuntza eta Kulturaren esparruan arduradun diren Nafarroako Gobernuo kideetako batzuek aipaturiko beste argudio bat Nafarroan musikako goi zikloa abian jartzeko baliabide ekonomikorik ezari dagokio. Gauza nabaria da titulazio berriak eskaintzeko borondate politikoa dagoenean –horrelakoa izan da NUPen kasua–, edo Unibertsitate horretan bertan kirol-azpiegiturak

hobetu behar direnean, helburua lortzeko adinako kontusailak gaitzen direla.

Egoera horri irtenbidea emateko, arduradun horiek diotenez, beka-politika hobetu behar da, musika ikasi nahi duten nafarrek asmo hori lor dezaten, baina gure foru komunitatearen mugetatik kanpora, nahiz eta ikasketak horiek Nafarroan egin ahal izanen liratekeen inolako arazorik gabe. Irtenbide hori, Nafarroako Demokratikoen Elkargunearen iritziz, nabarmenki eskasa eta atzerakoa da.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du LOGSEko musika-ikasketen goi mailak Nafarroan izan beharreko garapena arautu dezan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du ikasleek musikako goi maila beste kontserbatorio batzuetan ikasi ahal izatea berma dezan; horretarako, beste ikastetxe batzuekin akordioak lortu beharko dira, ikasleak musikako goi mailako titulazioan sartu ahal izatea errazteko. Halaber, beka-sistema baten bitartez, goi mailako ikasketak Foru Administrazioaren dirulaguntza batekin egin ahal izatea bermatuko da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 30ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Irakeko Kurdistanen gaineko adierazpen politikoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2001eko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako adierazpen politikoa hartu zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere solidaritatea agertu nahi dio Irakeko Kurdistango herriari. Halaber, herri horretan sistema demokratikoa ezartzeko eta herria berreraikitzeke egiten ari den ahaleginen alde dagoela adierazi nahi du.

2.- Nafarroako Parlamentuak nazioartean eta Nazio Batuei eskatzen die Irakeko Kurdistanen jasaten duen enbargoa ken dezatela, Irakeko Estatuaren barnean Kurduen Estatu Federala aitortu dadila eta, garapenaren aldeko laguntzak gehituz nahiz berariazko funtsak ezarriz, herria berreraikitzeke ahaleginak areagotu daitezela.

3.- Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du zenbait ekintza egitea gure erkidegoko iritzi publikoari Irakeko kurduen herriak bizi duen egoeraren berri emateko; hori dela-eta, Foru Komunitateko gobernuak kanpoko erakundeei dei egiten die helburu hori lortzeko jardun dezaten.

4.- Adierazpen politikoa Kurdistango Alderdi Demokratikoak Espainian dauzkan ordezkariak eta Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiari helaraziko zaie.”

Iruñean, 2001eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

LORAFNA oinarri duen autogobernu-ahalmena erabiltzeari Estatuko Gobernuak behin eta berriro eginiko erasoen aurkako adierazpen politikoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2001eko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako adierazpen politiko hau hartu zuen:

“1.- Errege Bardea natur parke deklaratuaren duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onesteko Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2000ko abenduaren 21ean harturiko erabakiari Konstituzio Auzitegian aurkezturiko errekurtoa ken dezan premiatzea Estatuko Gobernuak.

2.- Nafarroako Errege Bardearen lurralde-zati bat defentsa nazionalerako interesekoa den eskualdea deklaratzeko abenduaren 1eko 1943/2000 Errege Dekretua etenik utz dezan premiatzea Estatuko Gobernuak.

3.- Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak bere kezka agertu nahi du, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 50.1 d) artikuluan oinarrituriko gure autogobernu-ahalmena erabiltzeari Estatuko Gobernuak behin eta berriro eginiko erasoak direla-eta.

4.- Nafarroako Gobernuak premiatzea nafar herritarren ordezkariak onetsirik erabakia defendatzeko Konstituzio Auzitegira jo dezan, gure erki-degoko autogobernu-ahalmena babesteko xedez.

5.- Adierazpen hau Estatuko Gobernuari eta Nafarroako Gobernuari helaraztea.”

Iruñean, 2001eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

Maiatzaren 22a Ezkaba mendiko gotorlekuko ihesean askatasunaren alde eta faxismoaren aurka hildakoen urteurrena izatearen ondoriozko adierazpen politikoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2001eko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak maiatzaren 22a Ezkaba mendiko gotorlekuko ihesean askatasunaren alde eta faxismoaren aurka hildakoen 63. urteurrena dela-eta, honako adierazpen politiko hau onetsi zuen:

“1938ko maiatzaren 22an, gerra bete-betean, penintsulako leku ezberdinetako bi mila bostehun pertsona Ezkaba mendiko gotorlekuan atxiloturik zeuden, askatasunaren eta Errepublikako legediaren alde borrokatzeko hartu zuten konpromisoaren ondorioz. Egun hartan, haietako zazpiehun eta laurogeita hamabostek, euren bizia arriskuan jarri, ihes egin zuten. Ihes hura eskubide demokratikoen aldeko beste ekintza bat baino ez zen. Bostehun eta laurogeita bost berriro presondegira eramane zituzten, eta ehun eta laurogeita zazpi armarik ez zeukatela hil ziren, haiek harrapatzerako joan zirenekin borroka desorekatua eginez.

Gizon haiek, hainbeste gizon eta emakumek bezalaxe, askatasuna eta legeak betez eraturiko Errepublika faxismoaren aurka defendatu zuten.

Tamalgarría da Nafarroako ordezkariak garaienek –Nafarroako Parlamentuak eta Gobernuak, alegia— inoiz ezer egin ez izana herritar guztien askatasunaren alde bizia edo bizitzako urte batzuk eman zituzten pertsonen oroitzapen-tan, haiek hainbeste merezi zuten arren.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak publikoki onartzen du une latz haietan askatasuna defendatu eta aldarrikatu zutenek arrazoia zeukatela eta horretarako emateko prest egon ziren ordain izugarriak euren adorea agertzen duela, aipaturiko gertakariak eta beste leku batzuetan izan zirenek frogatzen duten bezala.

Halaber, publikoki eskertu nahi die askatasunaren mesedetan eman zuten laguntza eskerga,

eta adierazi nahi du gaur egungo belaunaldiok ezin izanen genituela dauzkagun esparru demokratikoak eduki haiek egin zuten ahalegina egin izan ez balute.

Eledunen Batzarrak Ezkaba mendiko gotorkuan zigorturiko demokrata eta errepublikarretatik oraindik bizirik daudenei edo, haien ordeztu, haien

ahaideei adierazpen eta gorespenei hau helarazteko bere esku dituen bitartekoak erabiltzeko konpromisoa hartu du. Horretarako, haiekin harremana daukaten pertsona edo elkarteengana joko du.”

Iruñean, 2001eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sinteleko langileentzako zubi-kredituek eragindako interesak bere gain har ditzan

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak, 2001eko maiatzaren 31n eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sinteleko langileentzako zubi-kredituek eragindako interesak bere gain har ditzan”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sinteleko langileentzako zubi-kredituek eragindako interesak bere gain har ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere gain har ditzan Sintel enpresako Nafarroako lantegiko langileek Lan Ministeriotik, FOGASaren bitartez, jaso behar dituzten diru-kopuruen aurrerapen gisa emaniko zubi-kredituen korrituak.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburutegien sarean Internet jar dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburutegien sarean Internet jar dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 29an egini-

ko bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko martxoaren 26ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Allon industrialde bat sortzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Allon industrialde bat sortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak

xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dadin:

Allo herrian industrialde bat sortzeko aukera dagoela ikusi ahal izan da.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Allon industrialde bat eraikitzeari buruzko inolako proiektu- edo bideragarritasun-espediterik ba al dago? Baiezkoan, espediente horren prozedura zein fasetan dago?

2.- Aipaturiko herriko udalarekin inolako harremanik izan al da? Zehatz bedi.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Corellako liburutegi publikoak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Corellako liburutegi publikoak eskaintzen dituen zerbitzuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dadin:

Corellako liburutegi publikoa erabiltzen duten herritarrek kexuak agertzen dituzte, etengabe, bertan eskaintzen den zerbitzuari buruz. Askok ordutegia luza dadila, leku gehiago izatea eta ikus-entzunezko nahiz informatikako bitarteko gehiago eta hobeak eskura izatea eskatzen dute.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Nafarroako Gobernuaren ustez jendaurreko ordutegia, espazio fisikoa eta eskaintzen diren bitartekoak egokienak al dira bertako biztanleen beharretarako?

2.- Aipaturiko zerbitzua hobetzeko inolako neuririk hartzeko asmorik al du, bakarka nahiz besteekin batera?

3.- Oporrak hartzeagatik, gaixotasun ondoriozko ezgai egoeragatik, eszedentziagatik edo beste zerbaitengatik hutsik geratzen diren lanpostuak nola betetzen dira?

4.- Zein lan-araubide eta lanaldi daukate zerbitzu horretan diharduten langileek?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Lurzatien berrantolamenduan gertatutako aldaketei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak lurzatien berrantolamenduan gertatutako aldaketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galde-

ra hau egin dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Iaz, gure talde parlamentarioak eginiko galdera bati emandako erantzunean, zure Departamentua lurzoru-berrantolamenduari dagokionez 2000 eta 2001 urteetan zer ekintza egiteko asmotan zebilen azaldu zenigun.

1.- Asmoen eta azkenean egindakoaren artean alde handirik izan al da 2000n zehar?

Kasua bada, zein aurrekontu-aldaketa izan diren jakin nahi dugu, eta, aurreikusitako ekintzetakoren bat azkenean egin ez bada, horren arrazoiak. Ekintza berriren bat egin bada, horren arrazoiak ere bai.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Lurzatien berrantolamenduaren arloan 2001erako aurreikusita zeuden jarduketei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak lurzatien berrantolamenduaren arloan 2001erako aurreikusita zeuden jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako Foru Parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galde-

ra hau egin dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura kontseilariari, idatziz erantzuteko:

Iaz, gure talde parlamentarioak eginiko galderari bati emandako erantzunean, 2000 eta 2001erako zure departamentuak lurzati-berrantolamenduari dagokionez egin nahi zituen ekintzen berri eman zenigun.

1.- Zure departamentuak gure talde parlamentarioari iazko apirilaren 14an emandako erantzunean agertzen zituen ekintza berberei eusten al die 2001erako, lurzati-berrantolamenduari dagokionez?

Aldaketarik izan baldin bada, zein dira, eta zein da horien arrazoia?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Abeltzaintza babestu eta hobetzeko programaren barreneko "Saneamendu kanpaina" kontusailaren betetze egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak abeltzaintza babestu eta hobetzeko programaren barreneko "Saneamendu kanpaina" kontusailaren betetze egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José

María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

1.- Nolakoa da abeltzaintza babestu eta hobetzeko programako "Saneamendu kanpaina" kontusailaren betetze-egoera?

Kontusail horrek izandako garapen zehatzaren berri izan nahi genuke.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

”Nekazaritza ustiategien eraginkortasunaren hobekuntza” kontusailaren betetze egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Nekazaritza ustiategien eraginkortasunaren hobekuntza” kontusailaren betetze egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José

María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidura kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Abeltzaintza babestu eta hobetzeko programaren barneko “Nekazaritza-ustiategien eraginkortasunaren hobekuntza” kontusailaren betetze-egoera nolakoa da?

Kontusail horrek izandako garapen zehatzaren berri izan nahi genuke. Ea dirulaguntzak ordaintzeari dagokionez atzerapenik ote dagoen, eta, halako kasuetan, horretarako arrazoiak.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Ordenagailuak erosteko laguntza kanpainari buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak jaunak ordenagailuak erosteko laguntza kanpainari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamendua xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dadin:

Maiatzaren 28an, Nafarroako Gobernuak ohar bat argitaratu zuen hainbat hedabidetan, ordenagailu-salmentako establezimenduei zuzendua. Irargari horrek hauxe esaten zuen, hitzez hitz:

“Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jakinarazten du hitzarmen bat sinatu duela bost finantza-entitateekin –Nafarroako Kutxa, Nafarroako Rural Kutxa, Euskadiko Kutxa, Banco Guipuzcoano eta Banco de Vasconia— ordenagailu-erosketa finantzatzeko kanpaina bat aurki egiteko asmoz, eta sektore horretakoak izanik aipaturiko kanpaina parte hartu nahi luketen establezimenduei dei egiten die zehazturiko finantza-entitateetako bulegoetara jo dezaten, informazioa jaso eta programarekin bat egin ahal izateko”.

Beraz, ordenagailu-dendei kanpaina parte hartzen zuten finantza-entitateetara jo zezaten dei egiten zitzaion, ordenagailu-erosketa finantzatzeko kanpaina publikoari buruzko informazioa jasotzeko. Alegia, laguntza publikoei, kanpaina parte hartzen zuten finantza-entitateen laguntzei... buruzkoa. Finantza-entitate horien berri ez zen ordura arte eman, ez eta haien izenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ere.

Alabaina, egun hartan bertan, maiatzaren 28an, ordenagailu-salmentako establezimendu batek iragarki bat argitaratu zuen prentsan, eta bertan Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza-programaren, horren baldintzen, entitate parte-hartzaileen eta gobernuaren nahiz entitate horien dirulaguntzaren zenbatekoaren berri ematen zuen. Bestalde, iragarki horretan, aipaturiko establezimenduak Foru Komunitateko ikur ofizial bat erabili zuen (Nafarroako armarrria).

Hori guztia dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak ordenagailua erosteko finantzatze-kanpainaren edukiaren berri eman al zion, maiatzaren 28ko iragarkia baino lehenago, horrelako ekipoak saltzen dituen establezimenduren bati?

2.- Nafarroako Gobernuak ba al daki ordenagailuen salmentan diharduten establezimendu batzuek zein bidetatik jaso ahal izan duten, maiatzaren 28ko iragarkia argitaratu aurretik eta, beraz, pribilegioz, ordenagailua erosteko finantzatze-kanpaina publikoaren edukiaren berri?

3.- Bost entitate laguntzaileekin sinaturiko hitzarmenetan, iragarki ofiziala hilaren 28an argi-

taratu aurretik entitate horiek informaziorik eman ahal ez izatea ezarri al zuen Nafarroako Gobernuak?

4.- Finantza-entitateren batek bere bezeroren bati iragarki ofiziala hilaren 28an argitaratu aurretik ordenagailua erosteko finantzatze-kanpainaren edukiaren berri eman izan balio, finantza-entitate horrek arauren bat hautsiko zuen? Nafarroako Gobernuak ildo horretatik urratsen bat emateko asmorik al dauka?

5.- Ordenagailu-salmentan diharduten zenbait establezimenduren mesedetan izandako pribilegiozko informazioaren filtrazioa, ordenagailua erosteko finantzatze-kanpaina publikoaren edukari buruzkoa, non gertatu zen ikertzeko asmorik ba al dauka Nafarroako Gobernuak?

6.- Publizitate pribatuan Nafarroako Foru Komunitatearen ikur ofizialak erabiltzeari dagokionez, arau-hausteren bat al da hori? Nafarroako Gobernuak ildo horretatik urratsen bat emateko asmorik al dauka?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 30ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Sendagaiak eta beste farmazia produktu batzuk erosteko jarraitzen diren prozedurei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak sendagaiak eta beste farmazia produktu batzuk erosteko jarraitzen diren prozedurei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikiriko osasungaietarako eledun Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren

babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

Hilabete honen hasieran, 98ko ekitaldiari buruz Kontuen Auzitegiak eginiko txostenak Insalud-eko ospitaleetako farmazia-gastuari dagozkion zenbait irregulartasun utzi ditu agerian. Horrela, medikamentuak erostean, laborategi berari erositako botika beraren truke elkarren arteko alde handiak izan dituzten prezioak ordaindu dira, erosketa eginen zuten ospitalea zein zen. Halaber, Kontuen Auzitegiak ikusi du printzipio aktibo bera izanik merkatuan %70 merkeago diren alternatibak ere badaudela.

Orobat, medikamentu eta farmazia-produktuen erosketarik gehienak Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legeak ezarritako prozedurak jarraitu gabe egin direla ikusi da, eta, kasu batzuetan, bi milioi pezeta baino zenbateko handiagoa ez zeukaten kontratu xeheen bidea erabili

da 315 milioi pezetarainoko medikamentu-erosketak hornitzaile berari esleitzeko.

Irregularitasun horiek direla-eta, gaur egungo Osasun ministroak irizpide berriak sartu ditu kudeaketa-kontratuetan, ospitaleak lehiaketa-enkante sistema erabiltzera behartzeko eta ospitale-esparruko farmakoterapia-gida ezartzeko, eta aldaketen artean, besteak beste, banakako dosien sistematik hedatu izana aipatu behar da.

Hori guztia dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Nafarroako ospitale publikoetan medikamentuak eta bestelako farmazia-produktuak erosteko zein prozedura arrunt eta presako erabiltzen dira?

2.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitale bakoitzean urtean izandako farmazia-gastu guztia zenbatekoa izan da 1997, 1998, 1999 eta 2000n?

3.- Erositako medikamentuei dagokienez, gastuaren zein ehuneko dagokie O-NOZeko ospitale bakoitzean 1997, 1998, 1999 eta 2000n erositako medikamentu orokorrei?

4.- Ospitale horietako kudeaketa-kontratuek banakako dosien sistemarik, medikamentu eta farmazia-produktuen hornikuntzarako lehiaketa-enkanteko prozedurarik edo baliabideak hoberentzeko bestelako neurririk biltzen al dute?

5.- Litekeena al da O-NOZeko ospitaleetan ere gertatu izatea Insalud-en gertaturikoa, alegia, medikamentu edo printzipio aktibo edo farmazia-produktu berberagatik prezio ezberdinak ordaintzea?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

”Internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza” kontusaila aplikatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTOBAL GARCIA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak “Internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza” kontusaila aplikatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau 188.1 artikulua ezartzen duen presako bidetik izapida dadila eskatzen du, Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin. Galdera “Internetera konektaturiko ordenagailu pertsonalak erosteko laguntzak” izeneko kontusailaren aplikazioari –kontusail hori Parla-

mentuko Talde Sozialistaren ekimenez sartu zen 2001eko Aurrekontu Orokorretan– eta 2001eko maiatzaren 28an prentsa idatzian laguntzei buruz agertu zen publizitateari buruzkoa da.

Galderaren justifikazioa

2001eko maiatzaren 28an, erkidegoko prentsa idatzian publizitate-iragarki bat argitaratu zela ikusi genuen. Bertan, enpresa pribatu batek eskaintza bat egiten zuen, honako hitz hauekin: “Balia zaitez Nafarroako Gobernuaren laguntza bidez Interneten sartzeko aukera honetaz”. Eskaintzan adierazten zen ordenagailuak erosteko deskontuak zeudela, Nafarroako Gobernuak emandako 25.000 pezetako dirulaguntza bati eta finantza-entitate batek (Nafarroako Kutxa, Nafarroako Rural Kutxa, Euskadiko Kutxa, Banco Guipuzcoano eta Banco de la Vasconia) emandako 20.000 pezetako beste bati esker.

Horrek pentsarazten digu Nafarroako Gobernuan gai horretan eskudun den departamentuak jadanik onetsi duela aipaturiko kontusaila aplikatzeko araudia, finantza-entitateekin beharrezkoak diren hitzarmenak sinatu direla, eta informatikaren esparruko enpresei eskaintza hori iragarri zaiela, haiek beren eskaintzak egin ditzaten, nahiz eta

interesa batek baizik ez agertzea eta publizitate-iragarki bat ordaintzea harrigarria iruditzen zaigun.

Galderaren testua

Aurrekoa azaldu ondoren, Nafarroako Gobernuari hauxe galdetzen zaio:

- Astelehenean, maiatzak 28, laguntza publikoak eta finantza-entitateenak zeuzkan informatika-

eskaintza bat dela-eta iragarki bakarra –enpresa pribatu batena– argitaratu izana nola azaltzen du Nafarroako Gobernuak? Noiz onetsi zuen Gobernuak horri buruzko araudia? Noiz sinatu dira hitzarmenak finantza-entitateekin? Zer-nolako publizitate izan du horrek?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza arautzeko foru dekretua ez onetsi izanari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTOBAL GARCIA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza arautzeko foru dekretua ez onetsi izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau 188.1 artikulua ezartzen duen presako bidetik izapida dadila eskatzen du, Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin. Galdera hiru urtez beherako haurrak zaintzeko zentroen araubideari buruzko foru dekretuaren behin betiko onespenerari buruzkoa da.

Galderaren justifikazioa

Duela urtebete baino gehiago, Nafarroako Alderdi Sozialistak eta Nafarroako Gobernuak oinarri-akordio bat sinatu zuten, 0tik 3 urtera bitarteko haur hezkuntza Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko. Bertan, zenbait epe aurreikusten ziren, eta 2002-2003 ikasturtean Nafarroako herri guztietan eskola-maila horretarako behar adinako postu-eskaintza egotea xedatzen zen.

Alabaina, gai hau arautuko duen foru dekretua oraindik ez da onetsi, nahiz eta Nafarroako Eskola Kontseiluak jadanik onetsi duen, eta atzerapen hori kezkarria da Parlamentuko Talde honentzat, zeinak ez baitu pentsatu nahi Gobernuak aurrekontu-itun batean harturiko konpromiso baten aplikazioa atzeratzeko inolako asmorik duenik, ezagunak ez diren arrazoiak direla medio.

Galderaren testua

Aurrekoa azaldu ondoren, honako galdera hau egin nahi zaio Nafarroako Gobernuari:

- Zergatik ez da oraindik onetsi 0tik 3 urtera bitarteko irakaskuntza arautuko duen Foru Dekretua? Gobernuak dekretu hori noiz onesteko asmoa dauka?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--